## OSASUN PUBLIKOAREN ETA ADIKZIOEN ZUZENDARITZARI

**Gatikako udala**
Bizkaia

SARRERA IRTEERA 0084
2018 URR. 31
GATIKAKO UDALA

Donostia-San Sebastián kalea, 101010 VITORIA-GASTEIZ (ARABA)

Norentzat: Miren Dorronsoro. Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendaria.

Garai auzoa, 1 – Tfnoa: 94 615 12 01 – Faxa: 94 615 14 90 – 48110 GATIKA (Bizkaia) – I.F.K.: P4804800C

Zuzendari andrea:

Europa barneko azpiegitura energetikoen ganeko orientazinoen inguruko 2013ko apirilaren 17ko UE 347/2013 Araubidearen esparruan, “Frantzia-Espainia Interkonexino Elektrikoko Proiektua”, 2013ko urriaren 14an, Batzordeak eta Europako Parlamentuak “Interes Komuneko Proiektu” lez esleitu eban, eta, ganera, ENTSO-Eren 2012ko bagileko Europako Garraio Sarearen Hamar Urterako Garapen Planaren barruan dago; izan be, interkonexinoak sendotzeak erabateko lehentasuna dauka datozen urteotarako garraio-sarearen garapenean, Energiaren Europar Batasunaren ideia beteteko.

Espainia-Frantzia Bizkaia-Gascogne Golkotik Itsaspeko Interkonexino proiektua Ministroen Kontseiluaren 2015eko urriaren 16ko Akordioak onartu eban; urriaren 21eko IET/2209/2015 Agindu bidez argitaratu zan (2015eko urriaren 23ko BOE, 254 zenbakikoa).

Proiektu hori hasierako fasean dago; Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak ofizioa bialdu deutse, besteak beste, Maruri-Jatabe eta Lemoizko udalei, 30 eguneko epean, holan bajagoko, Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazinoaren Dokumentuan jaso beharreko alderdiak aitatzeko.

Proiektu horrek interesa eta ardura logikoa eragin dau bai udalerrietan proiektuaren eraginpean dagozan erakundeetan, bai udalerriotako herritarrengan. Gure toki-erakundeetatik uste dogu dokumentu horrek aurreikusi eta ebaluau egin behar dauzala, ingurumen-izaerako eta urigintza-izaerako alderdiak ez ezik, funzionamenturako beharrezkoak diran azpiegitura elektrikoen instalazinoak eta abiarazteak giza osasunean ekarri leikeezan ondorioak be.

Bestalde, Euskadiko Osasun Antolamentuaren ganeko bagilaren 26ko 8/1997 LEGEAk 15. artikuluan ezarten dau Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek ordenamentu juridikoak esleitzen deutsezan osasun- eta osasungarritasun-kontroleko eskumenak beteko dabezela eta, egiteko horreek beteteko, toki-erakundeek Euskadiko osasun-sistemako langileen eta baliabideen laguntzino teknikoa eskatu beharko dabela.

Azaldutakoa kontuan hartuta, Gatika, Maruri-Jatabe eta Lemoizko udalek asmoa daukie erabat garatzeko osasuneko eta osasungarritasuneko prebenzino-kontrola, proiektuaren tramitazinoaren hasieratik, eta, hori dala eta, **gure ustez ezinbestean izan behar dau proiektuak osasun-txostena,** hasieratik une honetan dagoan dokumentazinoa ikusita, **ha abian jarteak personen osasunean ekarri leikezan ondorioak aztertuko dauzana.**

Holan, ba, gutun honegaz batera, gure erakundeek horren inguruan daukien dokumentazinoa bialtzen deutsugu.

Hori dala eta, laguntzino tekniko horretarako bide emoteko eta eskatzen dan osasun-txostena emoteko eskatzen deutsugu.

Eskerrik asko, aldez aurretik, zuen laguntza eta lankidetza apartagaitik, eta jaso agur bero bat.

Gatika, 2018ko urtarrilaren 24a.

**Lemoizko alkatea**

**Maruri-Jatabeko alkatea**

**Gatikako alkatea**

Gatikako udala
Bizkaia

# A LA DIRECCIÓN DE SALUD PÚBLICA Y ADICCIONES

SARRERA IRTEERA
0084
2019 URT. 31
GATIKAKO UDALA

Calle Donostia-San Sebastián, 101010 VITORIA-GASTEIZ (ARABA)

ATT: Miren Dorronsoro. Directora de Salud Pública y Adicciones.

Garai auzoa, 1 – Tfnoa: 94 615 12 01 – Faxa: 94 615 14 90 – 48110 GATIKA (Bizkaia) – I.F.K.: P4804800C

Sra. Directora:

En el marco del Reglamento de la UE 347/2013 de 17 de abril de 2013, relativo a las orientaciones sobre las infraestructuras energéticas transeuropeas; el "Proyecto de Interconexión Eléctrica Francia-España" fue designado, el 14 de octubre de 2013, por la Comisión y el Parlamento Europeo como "Proyecto de Interés Común", y forma parte también del Plan Decenal de Desarrollo de la Red de Transporte Europea de julio de 2012 de ENTSO-E, ya que el fortalecimiento de las interconexiones supone la mayor prioridad a acometer en los próximos años en el desarrollo de la red de transporte, encaminado a hacer posible la idea de la Unión Europea de la Energía.

El proyecto Interconexión submarina España-Francia por el Golfo de Bizkaia-Gascogne fue aprobado por Acuerdo del Consejo de Ministros de 16 de octubre de 2015, publicado por Orden IET/2209/2015, de 21 de octubre (BOE nº 254, de 23 de octubre de 2015).

Este proyecto se encuentra en su fase inicial, en la que se ha trasladado por parte del Ministerio de Agricultura y Pesca, Alimentación y Medio Ambiente oficio, entre otros, al Ayuntamiento de Gatika, Maruri-Jatabe y Lemoiz, para que en el plazo de 30 días señalen, si procede, aspectos que se deberían reflejar en el Documento de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental.

Este proyecto ha suscitado interés y lógica preocupación tanto en las corporaciones de los municipios afectados por el proyecto, como en sus vecinos y vecinas. Desde nuestros entes locales consideramos que dicho documento debe prever y evaluar no sólo aspectos medio-ambientales y urbanísticos, también las posibles afecciones que a la salud humana se puedan derivar de la instalación y puesta en marcha de las infraestructuras eléctricas necesarias para su funcionamiento.

Por otra parte, La LEY 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación sanitaria de Euskadi en su artículo 15, señala que las corporaciones locales de la Comunidad Autónoma de Euskadi ejercerán las competencias que en materia de control sanitario y salubridad les atribuye el ordenamiento jurídico y que para el desarrollo de dichas funciones, las corporaciones locales deberán recabar el apoyo técnico del personal y medios del sistema sanitario de Euskadi.

En vista de lo expuesto, los Ayuntamientos Gatika, Maruri-Jatabe y Lemoiz, pretenden desarrollar plenamente el control preventivo de sanidad y salubridad, desde el inicio de la tramitación de dicho proyecto y por ello **consideramos fundamental que dicho proyecto cuente con un informe de sanidad que examine,** desde su fase inicial y a la vista de la documentación existente en este momento, **las repercusiones que a la salud de las personas pueda acarrear su puesta en marcha.**

Así, se le envía con la presente misiva, la documentación que nuestras corporaciones disponen al respecto.

Por ello, le solicitamos que tenga a bien de hacer posible esta asistencia técnica y emita el informe de sanidad solicitado.

Agradeciéndole de antemano su inestimable ayuda y colaboración, le saludan atentamente.

En Gatika, a 24 de enero de 2018.

**El alcalde de Lemoiz**

**El alcalde de Maruri-Jatabe**

**La alcaldesa de Gatika.**